



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

EUSKARARI BURUZKO AZTERLANAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK

DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA

Euskarari buruzko azterlanak egitea da diru-laguntza hauen xedea. Era batera edo bestera udalerriarekin zerkusia duten lanak izan beharko dute eta hizkuntzaren edozein arlo izan dezakete aztergai: soziolinguistika, psikolinguistika, dialektologia...

Diru-laguntzak graduondoko ikastaroetako amaierako proiektuak laguntzera daude bideratuta; aipatu ikasketetako matrikula-kostua arintzera hain zuzen ere.

Diru-laguntza bakarra emango da azterlan-egitasmo bakoitzeko, azterlanaren egileak zenbat diren gora-behera.

NORK EMATEN DITU DIRU-LAGUNTZAK

Udaleko Hizkuntza Politikaren Saila da diru-laguntzak ematen dituen Saila.

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntzak graduondoko ikastaroaren matrikula-kostuaren %50 estaliko du eta diru-laguntzaren kopurua ez da 600 euro baino gehiago izango.

Urtean, altuena, bi azterlan lagunduko dira diruz. Eskerak bi baino gehiago balira, epaimahaiak erabakiko luke zein azterlan lagunduko lirartekeen.

DIRUZ LAGUNGARRIAK DIREN AZTERLANAK

Edozein graduondokoren amaierako proiektu izan daiteke diruz lagungarri, nahiz eta diru-laguntza lerro hau bereziki ondorengo bi graduondokoetara dagoen zuzenduta:

- Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Aditu Titutula (HUEZI).
- Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (EHU).

Diru-laguntza jaso ahal izateko beharrezkoa izango da graduondokoan eskatzaileak duen tutoreak azterlan edo proiektua ontzat ematea.

2016. urteko diru-laguntza deialdira ikastaro amaierako proiektua 2015-2016. ikasturtearen barruan entregatu behar duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira.

Azterlanak euskaraz idatzita egon beharko dute.

Diru-laguntzaren onuradunak udalerrian erroldatuta egon beharko du diru-laguntza deialdiari dagokion urteko urtarrilaren 1ean.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Eskatzaileak Udaleko Hizkuntza Politikaren Sailean egin beharko du diru-laguntza eskaera, horretarako prestatutako eskaera-orria erabilita.

Eskaera-orriarekin batera eskatzailearen NAN agiria eta graduondoko ikastaroko matrikula-ziurtagiria eta ordainagiria aurkeztu behar dira.

Eskaera hori Udaleko Hizkuntza Politikaren Batzordeak aztertuko du eta diru-lagungarri den erabakiko du, udalerriko hizkuntza normalizatzeko lanari egin diezaiokeen ekarpenaren arabera.

AZTERLAN EDO PROIEKTUAREN JABETZA

Diru-laguntza deialdira aurkeztutako proiektuaren jabetza egilearena izango da, baina Soraluzeko Udalak berau erabiltzeko eskubidea izango du, titulartasunaren berri emanda beti ere.

Diru-laguntzaren onuraduna derrigortua egongo da lanaren aurkezpena udalerrian ere egitera, Udalarekin adostutako egunean.